

Mendeurreneko ekitaldi gogoangarriak

Martin Ugaldek merezitako aitortza jaso du, haren jaiotzaren mendeurrenean. Ostiral honetan ere protagonista izango da, Rikardo Arregi Sarietan / 8-9

Sorotan Bele eta Udal Musika Eskolako Banda elkarrekin ariko dira Basteron, larunbat honetan / 7

Ramon Goikoetxea Gipuzkoako Atletismo federakuntzako presidenteari elkarritzeta / 10-11

Parte hartze prozesuaren ondorioz, zortzi egitasmo berri Urnietako 2022ko aurrekontuetan / 6

Andoaingo eta Urnietako eskubaloit taldeak maila bikaina erakusten ari dira denboraldi honetan / 12



Neurri berriak Gabonak gertu direla

Osasun Sailak prebentzioan sakondu nahi du, eta Udalengan jarri du ardura / 2-3

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
Igogailuak-ekin zerbitzua
www.bertako.eus




- ZURRA JAISITAKO OBJEKTUAK BERRISKURATzea
- HARRAPATZE EGDERAK
- HOGAILIKU ZARATAK
- 305/36/7

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917



Eusko Jaurlaritzak aste honetan Euskadiko hiru lurraldetako intzidentzia-tasaren berri eman zuen. Grafikoak olatu berria irudikatzen du. IREKIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Azaroaren 17ra iritsita, Osasun Sailak 150etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan irizpide berriak ezarriko dituela iragarri du. Euskadin murrizketak berrezarriko dituztela, hitz bitan. Azaroaren 15a da eta Vocento taldeko egunkariak azaleko lerrobura nagusira eraman du iragarpen hori. Jakin badakigu egunkari horrek iritzi publikoa eta gainerako hedabideen “agenda” ezartzeko duen eraginkortasuna.

Zer aldatu da, bada, urriaren 7az geroztik? Zer gertatu da Osasun-Alarma egoera eta hari lotutako LABI aholku batzordea bertan behera geratu diren 41 egunen horietan? Nondik nora dator askorentzat gaindituta zegoen birusa berriro agertu izanaren sentsazioa? Akaso ez zuten lau haizetara zabaltu Santomasak, Eguberriak, Donostia Eguna eta Inauteriak berriro ospatuko genituela?

Erantzuna, bilatu nahi izan duenarentzat, bazterrean aurki zitekeen. Azken sei asteetan izan direlako Vocentok eragiten duen itzaletik kanpo datuen azterketan aritu diren pertsonak. Eus-

Eta bat-batean balitz bezala, hemen da seigarren olatua

Urko Vallejo herrikidearen lanaren bitartez testuinguruan jarri nahi izan dugu azken asteotan pandemiak izan duen garapena. *Nola iritsi gara honaino?* Bat baino gehiago kezkaz beterik izango da egun hauetan, lerroburretara murrizketak itzuli direlako

ko Jaurlaritzak informazio-jarioa nabarmen etenda ere, grafiko eta datu bidez gerta zitekeena –eta zoritxarrez gertatzen ari dena– ohartarazten ibili direnak, gainera.

Andoainen, urrutira joan gabe. Koronabirusari lotutako informazioari dagokionez, ezaguna da gure artean Urko Vallejo herrikidea. Ingenieria da, eta datuen lanketan aritzea gogoko

du. Oso grafiko eta analisi argiak eskaini ditu pandemian zehar, edonork ulertzeko moduan. Orriotara behin baino gehiagotan ekarri ditugu haren hausnarketak eta grafikoak, eskuza-

bal jotzen baitu informazioa eskatzen dionarekin. Facebook sare sozialean C-19 Analisia izeneko orrialde irekia du, eta bertan maiztasunez zabaltzen ditu arreta merezi duten hausnarketak. Informazioa tantaka ematen aritu zaizkigun 41 egunotan, Vallejo bezalako herrikideen lana balioan jartzeko garaia da. Hedabide handien eta erakunde gabinetetatik datorren informazioaz harago, bera bezalako ahotsei erreparatzea ezinbestekoa bihurtu baita.

Egin dezagun atzera, egun hauetan bizitzen ari garenaren bila. Datuek zer etor zitekeen argiro iragartzen zutelako. LABI desegin aurreko orduetan, urriaren 5ean, haxe zen Urko Vallejo egiten zuen hausnarketa: “Gipuzkoan eremu berdean sartu ezinik gabiltza. Ostegunetik aurrera murrizketa gehienak kenduko dituztela kontuta hartuta, litekeena da, epe ertainera, intzidentzia-tasak gora egitea. Gustatuko litzaidake, Eusko Jaurlaritzak, hori gertatzen denarako, zer neurri hartuko dituen alde aurretik adieraztea”. Urriaren 5ean, komeni da azpimarra data horretan jartzea.

Eusko Jaurlaritzak hartu zuen beste neurri bat informazioari lotuta dago. Izan ere, urriaren 4az geroztik koronabirusari loturiko datu-boletina astean behin ematea erabaki baitzuen. Eta erabaki horrekin eguneroko garapena aztertzen duten/dugun eragile askori tresna bat gutxiagorekin utzi gintuen. Vallejo kexu agertu zen, “zerbitzu publiko batek behar duen gardetasunaren kontra” doala uste zuelako.

Urriaren 8an murrizketa guztiak kentzearekin kritiko agertu zen berriro, C-19 Analisia internet atari irekian: “Eguneroko positibo kopuruaren behe-rakada eteten ari da, batez ere Gipuzkoan, baina oro har Euskal Autonomia Erkidego osoan. Nik ez dut esango murrizketak kendu behar diren edo ez; baina murrizketak orain kentzen badituzte, arrazoi zehatzak eman beharko lituzkete. Adibidez, Gipuzkoan ez gaude eremu berdean, eta ez dirudi hurrengo egunetan eremu horretan sartuko denik. Ondorioz, Gipuzkoak ez du betetzen Bizi Berri planak murrizketak kentzeko finkatzen dituen baldintzak”. Kritiko, eta haserre agertu zen urriaren 8ko hartan: “Jarduera guztietarako

ordutegi eta edukieran zeuden murrizketak kendu egin dituzte. Kasu gehienetan, jarduera horietan musukoa erabili behar-ko badugu ere, jakin badakigu hori ez dela egoera guztietan errespetatuko. Jatetxeetan edozein kopuruko lagun-taldeek bazkaldu eta afaltzeko aukera izango dute, barrualdean zein terrazan, eta logikoa denez, une gehienetan musukorik gabe egongo dira. Tabernetan, ere berdin”.

Aste honetan “seigarren olatua” adiera erabiltzeko joera areagotu da. Iritzi publikoaren aurrean “agenda” ezartzen duten hedabideek horrela erabaki dutelako. Baina ia hilabete atzera –urriaren 18an–, hauxe irakurri genion Vallejori: “Intzidentzia-tasa igotzen hasi da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta hiru lurralde historikoetan. Positibotasuna ere nabarmen igo da, batazbestea, aurreko astean, %3tik gorakoa izan delarik. Seigarren olatuaren bila goazela dirudi, baina LABirik gabe, Eusko Jaurlaritzak olatu berri honek ekarriko dituen ondorioak onartzen dituela dirudi”.

Isiltasun informatiboaz keza berria agertu zuen urriaren 19an: “Eusko Jaurlaritzak LABI desegin du, eta egunero pandemiaren datuak emateari utzi dio. Ondorioz, komunikabideetan astean behin bakarrik azaltzen dira gaur egun, normalean, pandemiaren inguruko informazioak. Beste era batera esanda, Eusko Jaurlaritzak pandemia ahaztu dezagun, urratsak eman ditu. Orain harritu egiten dira, osasun arauak betetzen ez ditugulako? Gutaz barrezka ari dira? Zer uste zuten? Holako inozentekak dira?”.

Euskaditik ezarritako informazioaren murrizketa gaintitu asmoz, Espainiako Osasun Ministerioak argitaratzen dituen datuak aztertzeari ekin zion: “Urriaren 22an, Espainiako Osasun Ministerioaren datuen arabera, beste erkidegoekin aldentuta, EAEk 14 egunetako eta 7 egunetako intzidentzia-tasa altuena zuen. Eta baita ospitale-

ratze-tasa altuena. Pandemiaren egoera, nabarmen, okerrera doa Euskal Autonomia Erkidegoan”. Urriaren 22an, hori. Duela hiru asteko datuak eskuan zituela.

Kritiko agertu zen, egun berean, agintarien jokabidearekin: “Murrizketekin positiboak jaisten ez badira, logikoa dirudi hauek igotzea, murrizketak kentzen badira. Harrigarria egiten zait, pandemiaren datuak aztertzen ditugunok hasieratik aurreikusi genuen egoerarekin, orain Lehendakaria arduratuta dagoe-lira irakurtzea”.

Eta hiru egun beranduago, seigarren olatuaren ideia errepikatu zuen Vallejok: “Positibotasunak eta intzidentzia-tasak gora egin dute azken astean. Seigarren olatuaren bidean gaudela dirudi”. Sagardui Osasun Sailburuarentzat ere bazuen mezua, urriaren 26ko hartan: “Sagarduik dio, intzidentzia-tasaren igoerak ospitaleratze kopurua igoarazi duela, baina ez dela halakorik gertatu UCI-ZIUt看 ospitaleratutakoen artean. Bai, egia da; eta aurreko olatuetan gertatu dena errepikatzen bada, ondorengo egunetan handituko da zainketa berezien unitatean egongo den lagunen kopurua”.

Zoritzarrez, denborak arrazoia eman dio Vallejori. Azaroaren 15eko datuak eskuan, UCI-ZIUtako okupazioa 24 lagunetik 30era igo da astebetean. %25eko igoera da hori. Osasun-alarma egoera kendu dutenetik hilabetea igarota, joan zen azaroaren 9an hasiera-hasieratik defendatu duen argudioa errepikatu zuen Vallejok: “Pandemiaren datuak aztertzen dugunok iragarri bezala, murrizketak kentzearekin batera, intzidentzia-tasak goranzko bidea hartu du”. Eta aukera baliatu zuen hemerrotekatik tira egin eta arduradun politikoak jomugan jartzeko: “Donostiako neguko jaiak ia murrizketarik gabe ospatuko zirela iragarri zuten. Gobernariak pandemia desagerrarazi nahi izan zuten, eta orain, nola ez, gizartea da intzidentzia-tasa igotzearen arduraduna”. Vallejoren ustez, “Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen datuak aztertu besterik ez zen egin behar, zer gertatuko zen iragartzeko. Ez zait bidezkoa iruditzen, orain positiboen hazkundea gizarteari leporatzea, ardura nagusia Eusko Jaurlaritzak berak duenean”.

Azaroaren 15ekoak dira Eusko Jaurlaritzak eman dituen azken datuak. Bi egun lehenago, C-19 Analisia orrialdean honakoa irakur zitekeen: “Espainiako Osasun Ministerioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) intzidentzia-tasa 105,02tik 142,72ra (+%35,90) igo da egunotan. Iturri honek ez ditu Gipuzkoako datuak ematen, baina proportzioan igoera berdina balitz, 236,91ko intzidentzia-tasan geundekete”. Estimazioek diotena baina okerragoa da errealitatea. Gaurko egunez Gipuzkoako intzidentzia-tasa metatua 308,55eko da. Horrela jarraituz gero, eremu gorriarantz goaz zuzen-zuzenean.

Azaroaren 13an seigarren olatua bertan dela frogatzen duen grafikoa argitara eman zuen. Positiboak eta hildakoak erkatuta, hilgarritasun-tasa ateratzen da. Larunbatean argiro zioen: “Nabarmentzekoa da seigarren olatu honetan hilgarritasun-tasak izan duen hazkundea”. Ez da datu ona, inolaz ere ez.

Urko Vallejoren lanaren bitartez testuinguruan jarri nahi izan dugu azken asteotan pandemiak izan duen garapena. *Nola iritsi gara honaino?* Bat baino gehiago kezka betetarik izango da egun hauetan, lerroburuetara pandemiaren datuak eta grafikoak berriro itzuli direlako. Eta baita inoren gustuko ez diren neurri murriztaileak indarrean sartuko direlako.

Gizarteak, oro har, jakin behar du badirela gizarte osoari eragiten dion gaitzari buruzko datu biltzaile eta argitaratzaile interesgarriak. Eurengan ere arreta jartzea merezi dutenak. Aitortza, beraz, Urko Vallejo andoindarrari eta antzeko lanetan ibili direnei, informazioaren gizartean berea bezalako ekarpena garrantzia handikoa delako. Batzuk-batzuk zer zetorren ikusi genuelako, eta hori horrela izan bada C-19 Analisia bezalako egitasmoen informazio-jario etengabeari esker izan da. Bisitaldia merezi duen gunea da [facebook.com/C19Analisia](https://www.facebook.com/C19Analisia) gunea.

ANDOAINEN 'C-19 ANALISIA' INTERNET ATARIAREN BITARTEZ, GARAPENAREN BERRI IZAN DUGU

Positiboak eta intzidentzia-tasa, gora eta gora

UCI-ZIUt看 aldaketa handia eman da azken astean, 24tik 30era igo baita kopurua

Erredakzioa ANDOAIN

Azken astean positibotasunak eta intzidentziak igoera nabarmena izan dute.

Azaroak 14, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 160,13.
- Urnieta: 128,85.
- Gipuzkoa: 308,55.
- Positiboak denera: 2.576.
- Ospitalean: 114.
- UCI-ZIUt看: 30.
- Hildakoak: 6.

Azaroak 7, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 80,06.
- Urnieta: 64,42.
- Gipuzkoa: 174,33.
- Positiboak EAEn: 1.424.
- Ospitalean: 90.
- UCI-ZIUt看: 24.
- Hildakoak: 10.

Urriak 31, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 66,72.
- Urnieta: 241,88.
- Gipuzkoa: 116,45.
- Positiboak EAEn: 979.
- Ospitalean: 86.
- UCI-ZIUt看: 26.
- Hildakoak: 7.

Urriak 24, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 66,72.
- Urnieta: 595,91.
- Gipuzkoa: 93,14.
- Positiboak EAEn: 927.
- Ospitalean: 81.
- UCI-ZIUt看: 24.
- Hildakoak: 15.

Urriak 17, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 33,36.
- Urnieta: 434,85.
- Gipuzkoa: 73,15.
- Positiboak EAEn: 747.
- Ospitalean: 48.
- UCI-ZIUt看: 26.
- Hildakoak: 15.

Neurri berriak indarrean jarri dituzte, aste honetan bertan

Neurri berriak ezarriko dituzte 150 kasutik gorako intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietan

Erredakzioa ANDOAIN

Neurri osagarri horiek honako hauek lirateke:

1. "Udal agintariak 2021eko urriaren 6ko Aginduan aurreikutsitako prebentzio-neurriak betetzen direla bermatu ezin duten jarduera guztiak bertan behera uztea edo aldi baterako atzeratzea, jarduera horien eremua edozein dela ere. Janaria eta edaria edatearekin lotuta daudenetan interes berezia jarritz, horrek maskara ez erabiltzea errazten baitu".
2. "Prebentzio-neurriak mantenduz antolatzen diren ekitaldietan, bai barruko espazioetan, bai aire zabalean, neurriak indartzea. Hau da:
 - Jendearantzako espazioa handitzea.
 - Pasabideak ezartzea, pertsonen fluxu ordenatua errazteko.
 - Elikagaiak eta edariak saltzeko eta kontsumitzeko guneak mugatzea.
 - Ahal denean aire zabaleko jarduerak burutzea, seguruena direlako".

COVID ziurtagiria

Osasun Sailak aste honetan bertan baimena eskatuko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari jarduera jakin batzuetan COVID ziurtagiria eskatzeko. Eusko Jaurlaritzan baloratzen ari dira, 12 urtetik gorako pertsonentzat, honako toki hauetan eskatzea: gaueko aisialdiko establezimenduetan, musika- eta dantza-jarduerak egiten diren establezimendu edo lekuetan (kontzertuak, adibidez) edo baimendutako talde handiek aldi berean bat egin dezaketen jatetxeetan.

Neurri berrien dekretua azaroaren 17an indarrean sartzekoa zen, EAEko boletinean argitaratzearekin batera.

DATUAK ARAKATZEN DITUZTENENTZAT EZ DA EZUSTEKOA IZAN. ZER ZETORREN BISTAKOA BAITZEN

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

N-1 proposamena: Bi hilabete pasa dira, eta erantzunik jaso gabe jarraitzen dugu

Azaroaren 16an bi hilabete bete dira EH Bilduk proposamen bat erregistratu zuela. Proposamen horren arabera, N-1aren gaiak dituen korapiloak askatzen joateko, lanerako mahai egonkor bat sortuko litzateke. Bertan, udaleko alderdi eta teknikariez gain, parte hartu nahi duten herri eragile edo auzo elkarteek parte hartuko lukete. Eztabaidak iraun artean, zarata gutxitzeko neurriak adostuko lirateke GFA-rekin. Bi hilabete pasa dira, eta lege horrela egin behar badute ere, ez dugu erantzun ofizialik jaso. Udal Gobernu honen jarre-

ra gero eta harroagoa dela esan genuen duela hilabete, eta gauzak ez dira aldatu. Eta aldatzekotan okerrera egin dute. Jarra gero eta itxiagoa dute, zurrinagoa, eta gardentasun eza gai askoren gainean. Lehen batzordean hartzen ziren erabaki asko eta asko orain ebazpen bidez egiten dira, eta soilik derrigorrezkoa den informazioa helarazten zaio oposizioari. Bestalde gai garrantzitsuetan geldirik ikusten dugu udal gobernu; N-1aren gaian Andoaingo herriaren interes orokorrak eta estrategikoak defendatzeko, Ki-

roldegiaren bigarren pista martxan jartzeko, ur hoditeria berritzen jarraitzeko edo liburutegi berrian urratsak egiteko. Aipatu ditugun gai hauetan ahul dago udal gobernu, eta beraien jardun osoa ekimen txikietan eta propagandan dute ezarrita.

Iraila amaieran plenoak aho batez erabaki zuen GFA-ri eskatzea zarata gutxitzeko neurri urgenteak hartu zitzaizkien. Gaur gaurkoz ez dugu erantzunik jaso, eta jasoko dugun erantzunarekin baikorrak ez bagara ere, udalak horretan jarri behar du indarra. N-1 errepidearen arazoa bere

momenturik garrantzitsuenean dago. Datozen hilabeteetan erabakiko da norabide batean edo bestean egingo dena. Erabaki horretan, denok egon behar dugu, eta herri bezala iritzi bateratu bat badugu hobe. PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiarekiko menpekotasuna alde batera utzi eta denon arteko elkarrizketa ireki bat martxan jartzea eskatzen dugu berriz ere. Guk horrela eskatzen dugu, baina eragile askok ere interesa agertu dute gaiaren inguruan, eta ona litzateke denak mahai beraren bueltan eseritzea eta gaiaz hitz egitea.

MOZIOA

Urnietako PSE-EEren eskaera

Urnietako PSE-EE taldeak mozio bat erregistratu du datorren azaroaren 30eko Udalaren osoko bilkuran eztabaidatzeko. Ekimen honetan, PSE-EEK Urnietako Udalarari eskatu dio KZgunea gizarte zerbitzutzat eta funtsezkotzat jo behar duela, eta, beraz, gizartearentzat baliagarria denez, beharrezkoa dela jarraipena bermatzea, erabilgarria delako. "Zerbitzuaren murrizketa hori larria iruditzen zaigu, ez baitu betetzen KZguneako Zentroen Sareko Zerbitzuen Kartan jasotako konpromisoa", adierazi du Herme Gonzalez urnietako sozialisten bozeramaileak.

Hiltzaileak

**Martin Ugaldereen
IPUIN LIBURUA**

PODCASTA

Podcast guztiak entzuteko QR kodea eskaneatu

AIURRI

ANDOAINO UDALA

MARVETI

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

Ahaztutako eta ukatutako sufrimenduak

ETAren jarduera bukatu zenetik hamar urte bete diren honetan, Oroimen Legearen barruan sartu beharko luketen elementuak azaleratu dira. Hala nola, biktimak, sufrimendua, erreparazioa eta abar luze bat. Testuinguru honetan, EH Bilduk eta Sortuk Aieten eginiko adierazpenak ere erreakzio anitz sortu ditu. Zenbaitentzat adierazpen eskasa izan da, 'condena' hitza ez dutelako erabili. Beste batzuentzat, ordea, aurrerapauso bat izan da eta gaitzespen hitza etorriko deneko itxaropena azaldu dute. Semantika kontuetan nahastu gintezke, baina niretzat aurrerapauso handia izan da. Herri honen bizikidetzarako baliagarritzat joko nuke.

Dena den, zarata honen inguruan egin diren adierazpen eta eskakizun gehienak, guztiak ez esatearren, norabide bakarretik joan dira. Esan nahi baita biktima batzuren sufrimendua az-

pimarratu dela. Beste behin ere zenbait biktimen sufrimendua ahaztua eta ukatua izan da. Hau ez da zerbait berria, aspalditik gabiltzalako lehen eta bigarren mailako sufrimenduak daudela esanez; sufrimendua sailkatu egiten dugula, eta esan ere, esan dugu askotan, sufrimenduak ez duela ideologiarik; sufrimendua sufrimendua dela edonork pairatuta ere.

Honen harira, eta nire irudiko, bide bakar hori landu duten artean daude erakunde publikoak, Eusko Jaurlaritza barne. Esaterako, Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Giza Politikak arloko sailburuak elkarrizketa batean ez zuen aipatu ere egin ETArengandik aparte eman diren indarkeriak, eta horiek sortu duten sufrimendua. Bere adierazpenak norabide bakarretik joan dira, ETAk eragindako sufrimendutik aparte beste sufrimendurik ez balego bezala.

Eskakizuna ere bide berdinetik joan da. Elkarrizketa guztian EH Bilduri behin eta berriz gaitzetsi dezala eskatzen dio. Baina ez du deus ere esaten edo ez die ezertxo ere eskatzen beste zenbait indarkeria erabili zuten indarrei.

Izenburuan diodan bezala, gure artean ukatu eta ahaztuarazi den sufrimendu asko dago. ETAk eragindako sufrimendua gaitzetsi ondoren, nola ez, beste zenbait sufrimendu ere aipatu edo azaleratu nahi nituzke. Hala nola Egiari Zor memoria taldeak urriaren 27an emandako prentsaurrekoan adierazi zuena. Hizlariak Pilar Garaialde (Estatu Terrorismoak hildako Pablo Garaialderen alaba) eta Urtza Alkorta (Ertzaintzak torturatua) izan ziren. Azken egun hauek gogorak izan dira, alderdi emozionaletik kudeatzeko zailak. Gure herriko erakunde eta alderdi politiko batzuk aldarrikatzen duten ikuspegi etikotik,

ulertezina. Egun hauek, besteak beste, sektore politiko eta instituzional baten faltsukeria agerian uzteko balio izan digute. Ondoren faltsukeria horren ondorioak aipatzen dituzte, hala nola, Felipe Gonzalezen Gubernuko Barne Ministerioa izan zela Herri Batasunaren jarraitzaileen aurkako bonba gutunak bidaltzearen arduraduna, eta besteak beste, Jose Antonio Cardosaren heriotza eragin zutenak. Rafael Verak indultua jaso zuen Aznarren gobernuarekin. Jarrait genezake. Espainiako Barne Ministerioak domina eman dio 1944an Giza Eskubideak bortxatzeagatik kondenatutako polizia bati. Ramon Jauregi ere hizpide da, beste behin saiatu baita alderdia GALEn inguruko erantzukizun politikitik salbuesten.

Bide honetatik joan dira Pili Zabalak eginiko adierazpen batzuk ere. Elkarrizketa batean dio ETA desagertu zenetik ha-

margarren urteurrena tristuraz bizi izan duela. Arnaldo Otegi-ren Aieteko adierazpenei buruz zera dio: "Aurrerapauso bat da, norabide zuzenean. Eta etorriko dira gehiago". GALEn biktimei buruz galdera: "PSOEk ere gaitzetsi beharko luke eta injustua izan zela esan?". Zabalaren erantzuna: "Bai, PSOEk ere esan beharko luke. Eta baita bere gobernuarekin Estatu Terrorismoa izan zela ere, hitz horiek".

Hauxe egunotako albisteekin osatutako argazkia. Ez da, noski, nire gustukoa eta ez da bizikidetzat lortzeko bidea. Sufrimendua sufrimendua da, ez du sailkape-nik. Denak aitortu beharko dira, sufrimendu eta kontaketa guztiak, eta justizia eta erreparazioa ere biktima guztiei eman beharko zaie. Ikusiko dugu datozen Memoriaren Lege berriek gaia konpontzeko oinarria jartzen duten. Erne egongo gara.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Truxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Herriak du hitza

2022ko aurrekontuko 150.000 euro zertan inbertitu erabakitzea parte hartze prozesu baten bitartez egin da. 16 urtetik beherakoen proposamenak ere kontutan hartu dituzte, eta 15.000 euro bideratuko dira gaztetxoek lehenetsitakoak gauzatzeko

Erredakzioa URNIETA

Aurrekontu irekien prozesuan herritarrek proposamenak aurkezteko aukera izan zuten, maiztzean. Jasotako galdetegi guz-

tietatik 267 eman ziren ontzat. Udalak aurrera eramango diren berri eman du, proposamen bakoitzaren gastua zehaztuz. Prozesu honetan ikasleen parte

hartzea sustatu dute, eta haien proposamenetatik hainbat burutuko dira hurrengo hilabetetan. Parkeak estaltzeko aukeraketa, bestalde, martxan dago.



Mikel Pagola eta Jorge Segurado, aurkezpen ekitaldian. **AJURRI**



Pump track-a egin Ermotegi eta Etxeberri artean. 50.000 euro. **UDALA**



Skate park-a egin Eguzkialde parkean. 50.000 euro. **UDALA**



Trenbideko segurtasun itxiturak jarri geltokiaren eta Igerategiren artean. 35.000. **UDALA**



Berrasoeta parkeko futbol zelaia hobetu porteria handiagoak jarritz eta eremua egokituz. 2.200 euro. **UDALA**



Etxeberri plazako atzeko partean iturria jarri. 1.800 euro. **UDALA**



Urbita kalean hesi bat jarri eremu horretako segurtasuna hobetzeko. 9.000 euro. **UDALA**



Guria taberna ondoko iturria ordezkatu, oraingoa trabatua dago eta. 1.400. **UDALA**



San Joan plazako iturria hobetu. 600 euro. **UDALA**



Urnieta
udala

"Sorotan Bele gogoan", Andoaingo Bandarekin

Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren ikuskizun berriarekin gozatzeko aukera edukiko dute musikazaleek, Bastero Kulturgunean. Herriko musikariek luxuzko gonbidatuak izango dituzte alboan: Gorka Sarriegi eta Urbil Artola Sorotan Beleko kideak

Xabier Lasa ANDOAIN

Basteroko oholtzan ia 60 musikari bilduko dira, eta Mikel Emezabal bandako zuzendariak azaldu duenez, Hondarribiko talde mitikoa ezagutu zuten belaunaldiek zein ondorengoek gozatzeko moduko kontzertua eskainiko dute.

Zer dela eta sortu zaizue kontzertua egiteko aukera?

Iaz, Golden Apple Quartet-ekin kontzertua egin genuenean, talde horren konposatzaile eta moldatzatila den Xabier Zabarekin elkarlanean aritu ginen. Orduantxe, berak aipatu zigun Sorotan Beleren inguruan zein zen esku artean zeukan egitas-



Bandak azken emanaldia Asteasun eskaini zuen. AIURRI

moa, eta horrelaxe murgildu ginen geu ere. Ekainari begira prestatu genuen ikuskizuna, baina atzeratzen joan da murritzetak direla eta.

Zerekin gozatu ahal izango du Basterora hurbiltzen denak?

Sorotan Bele 90eko hamarkadan musika talde entzutetsuenetakoa izan zen. Batez ere bere lehenbiziko diskoak izan zuen oihartzunik handiena. Horko abesti ezagunak joko ditugu: *Arratsalde honetan*, *Amaren besoetan*, *Atalaia*... hamaika abesti, guztira. Oholtzara Sorotan Beleko Gorka Sarriegi eta Urbil Artola taldekideak igoko dira, eta baita teklatura, akordeoia eta xirula irlandarrak joko dituen Xabier Zabala. Banda osoa ariko gara, eta baita konboa osatzen duen hirukotea ere, hots, Gari Larrañaga gitarra-jolea, Gorka Otamendi perkusio-jolea eta Txitxu Castro teklista, eta baita ere Mirari Irurtzun biolin-jolea.

Kontzertuan zehar, abuztuan joan zitzaigun Jose Luis Fernandez *Fitero* bonbardino-jolea gogoan hartuko dugu, modu berezian. Senideak kontzertura gonbidatu ditugu.

Bandan belaunaldi ugari batzen zarete. Batzuentzat Sorotan Bele ezaguna da, besteentzat ez hainbeste.

Pentsa, Bandako kideren erdiak hogeitaz azpikoak dira. Ur tetan aurrera goazenontzat Sorotan Belek eta bere doinuek toki berezia daukate gure oroitzenetan. Egia ere bada musika eskoletako ikasleentzat *Arratsalde honetan* kantua klasiko bilakatu dela. Horrexegatik Bandako gazte askorentzat deskubrimendu polita izan da abesti ezagunak non duen jatorria jakitea.

Musika talde ospetsuekin kontzertuak eskaintzera ohitzen ari zarete...

Oskorriekin hasi ginen 2008an, eta ondoren Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen eta Golden Apple Quartet taldearen txanda iritsi zen. Prestakuntza eta exijentzia maila handiko ikuskizunak izaten dira, eta aurrera ateratzen badira bandako kide guztien inplikazioagatik izaten da. Oso-oso tarteka egin behar dira larunbatean eskainiko dugunaren antzeko ikuskizun bereziak, bere xarmari eusteko.

Andoain, Villabona eta Urnietako EROSKI city supermerkatuetan bakarrik

Azaroaren
18tik 20ra

Bazkidea bazara

**%25
DOAN**

zure erosketa osoan

Haragi, arrain, iberiko, olio, ardo, esne, detergente, paxihol... zure erosketa osoan.



Aurrezki gehiago bazkide izateagatik



***Deskontu-txartelekin itzuliko dizugu.** Deskontu-txartelen bidez gehienez lor daitekeen zenbatekoa: 40€ (deskontu-txartelak jaulkitzeko erosketaren gehienezko kopurua: 160€). Deskontu-txartel bakoitzak 10€-ko balioa izango du gehienez. Ezinbestekoa izango da EROSKI club txartela aurkezteko txartelak jaulki eta erabili ahal izateko. **2021eko azaroaren 19tik 2022ko otsailaren 12ra arte erabili ahaliko dira**, trukatutako beharrek txartel bakoitzeko gutxienez 20€-ko erosketa bat eginda. Egun eta erosketa bakoitzeko txartel bati baino gehiago trukatutako ahal izango da. Kontsultatu gainerako baldintzak atxikitako sariakietan. **Andoain:** Zumea, 3; Ondareta, 10. **Villabona:** Mayor-nueva, 28. **Urnietako:** Los Herreros, 2.



EROSKI

zurekin



Saridunak, finalistak, Martin Ugaldereen senitartekoak eta ekitaldian parte hartu zutenak ekitaldiaren amaieran egindako argazkian. ARGINDAR

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Idazle handia izan zen Martin Ugalde. Ez zen hori bere dohai bakarra izan, baina denek aitortzen diote ipuingile aparta zela. Horrexegatik Andoaingo ipuin lehiaketak darama idazlearen izena. Azaroaren 11n haren mai-laren tamainako ekitaldia antolatatu zuten Bastero Kulturgunean. Ipuin Lehiaketa edizio borobile-ra iritsi baitzen, XXV.era hain zuzen ere. Eta horrek bat egiten zuen Martin Ugaldereen jaiotzaren mendeurrenarekin. Garazi Kamiok maisuki bideratu zuen ekitaldia. Sariketaz harago, musika emanaldiak eta Martin Ugaldereen irudiak tartekatu zituzten. Bere obrari eta lehen edizioetako irabazleei keinu egin zieten ekitaldian zehar, aurtengo oinarrietan iraganeko ipuinak abiapuntu modura erabiltzea zehaztu baitzuten. Atzoko eta gaurko ipuingileen bilkura sustatu zuten modu horretan, belaualdien arteko uztarketa polita eginez. Ekitaldian, gainera, Urtzi Ugalde aktoreak Martin biziberritu zuen. Ekitaldietako protagonista izan zen.

Ikusle ugari bertaratu zen Basterora, sarituak eta Ugalde familia txalotzera hurbildu zirenak. Udal ordezkariak zabala elkartu zen, lau alderdietako ordezkariak bertan izan baitzuten. Unai eta Ainara Ugaldek sari-banaketa parte hartu zuten. Eta amaieran Ainarak eskerro-neko hitzak izan zituen, idazle gazteek aitaren bideari jarraipena ematen diotelako.

Mendeurreneko sari-banaketa ekitaldi gogoangarria

Martin Ugaldereen seme-alabek ez dute berehalakoan ahaztuko 2021eko azaroaren 11. Aitareen jaiotzaren mendeurrena ospatu baitzuten Andoainen, ekitaldi-sortaren bitartez. Ipuin lehiaketaren XXV. edizioak amaiera dotorea eman zion egunari

XXV. edizioko irabazleak

A Kategoría: 10-11 Urte

- | | | |
|-----------|---------------------|-------------------------|
| 1. Saria | "Egiaren saria" | Aiora Otamendi Baltasar |
| 2. Saria | "Sorginaren urrea" | Mikel Villar Amores |
| Finalista | "Egiaren salbaketa" | Ane Arostegi Aranburu |
| Finalista | "Sorginaren urrea" | Inge Barreros Talavera |

B Kategoría: 12-13 Urte

- | | | |
|-----------|------------------------|--------------------------|
| 1. Saria | "Besoaren truke" | Laiene Arteaga Eizagirre |
| 2. Saria | "Zentzurik gabe" | Paula Martin Bravo |
| Finalista | "Ospitaleko trajediak" | Nahia Ipinza Vidal |
| Finalista | "Ustekabeko bidaia" | Maren Aranburu Ugalde |

C Kategoría: 14-15 Urte

- | | | |
|-----------|-----------------------|--------------------------|
| 1. Saria | "Alleine" | Izaro Placencia Telleria |
| 2. Saria | "Herriko giro hori" | Ariane Rodriguez Muñoz |
| Finalista | "Txoriak bezala" | Lier Sarasola Fernandez |
| Finalista | "Ispiluko hiltzailea" | Jone Telleria Albistur |

D Kategoría: 16-17 Urte


- | | | |
|-----------|---------------------------|------------------------------|
| 1. Saria | "Herri baten sekretuak" | Miren Nieves Gomez |
| 2. Saria | "Ihesaren itzulera" | Aitziber Zubeldia Olasagasti |
| Finalista | "Zer? Orain nora amatxo?" | Sara Villalba Izagirre |
| Finalista | "Nire tokia aurkitu arte" | Naia Galindo Garcia |
| Finalista | "Hormak oihuka" | Aner Alkain Aguado |



Martin Ugalde biziberritu zuen Urtzi Ugalde aktoreak. AIURRI




MIREN NIEVES GOMEZ
D MAILAKO 1. SARIA




AITZIBER ZUBELDIA OLASAGASTI
D MAILAKO 2. SARIA

Mirenek eskertza adierazi zion amonari, baita ipuina idazten gozatu zuela aitortu ere. Aitziberren ustez historia oso urrun ikusten dugu, eta berak fikzioaren bitartez historiari lekutxo eskaini nahi izan dio.



IZARO PLACENCIA TELLERIA
C MAILAKO 1. SARIA



ARIANE RODRIGUEZ MUÑOZ
C MAILAKO 2. SARIA

Izarok Josu Lekuona irakaslea eta Martin Ugalde bera gogoan izan zituen sari banaketa ekitaldian. Bakardadea ikasgai izan daitekeela adierazi nahi izan zuen ipuinean. Ariane herri giroa balioan jartzeko ipuina idatzi du.



Erakunde ezberdinetako ordezkariak Ainara, Itsaso eta Unai Martin Ugaldereen seme-alabekin batera. AIURRI

Martin Ugaldereen hitzak, euskarri digitalean

Martin Ugalde idazle zein politikari andoaindarraren obra osoaren digitalizazio-lana aurkeztu zuen Jakin erakundeak, autorearen jaiotzaren mendeurrenaren harira. Erakunde ezberdinetako ordezkariak parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Andoaini eskaini zizkion lehen hitzak Martin Ugalde Orradre, hain justu ere, nahi baino lehenago utzi behar izan zuen sorterrari. 1946. urtean egin zuen kronika, eta, harrezkero, ozeanoaren beste aldetik, hasieran, eta etxetik gertu, gero, lumak sekula ez zion idazteari utzi, bere hitzak makina bat hamarkadaren bizipen pertsonal bezain kolektiboren lekuko bilakatzeraino.

Bada, idazlearen ekarpen sakona herriarren esku uzteko asmoz, egilearen obra osoaren digitalizazioa egin du Jakin erakundeak. Hala, ekimen horren aurkezpena egin zuten hilaren 11n, Ugaldereen jaiotzaren mendeurren egunean, autorearen izena daraman Andoaingo parkean. Senitartekoez gain, hamai-ka eragile eta erakundeetako ordezkari bertaratu ziren hitzordura. Iragan mendeko 90. hamarkadan ekin zion Jakin erakundeak digitalizazio-prozesuari, baina orain gutxi ikusi du argia lehenengo proiektuak. Orotara, 2.049

lan erregistratu dira: horietatik 1.662 Ugaldek berak idatziak dira. Gainontzekoa, 387, bai Ugaldez, bai bere ekarpenaz mintzo diren piezek osatzen dute. Hori horrela, Ugaldek landu zituen gaien arabera bilatzaile propio bat egin dute. Jakinen atari digitalean dago ikusgai, Euskal pentsamendua atalean, beste hainbat egileren ondoan. Lorea Agirre erakundeko zuzendariaren esanetan, Euskal Herriko autore erreferenteen “argazki oso bat” biltzen du gune horrek eta “elkarriketaren” ipintzen ditu egileak.

Emari erraldoia

Bizitza idazketari emana, 1.548 artikulua argitaratu zituen 69 hedabidetan, Euskal herrian nahiz Venezuelen. “Hor ikusten

ANDOAINDARRAREN OBRA OSOAREN DIGITALIZAZIOA EGIN DU JAKIN ERAKUNDEAK

da noraino iristen zen”, adierazi zuen Agirrek aurkezpenean, “zer nolako irisgarritasuna, zabaltasuna eta sarbidea zuen”. Ildo beretik, 46 liburu ondu zituen Ugaldek. “Ikaragarria” iruditzen zaio hori erakundearen buruari, agerian uzten baitu kopuruak “bizi osoa eman zuela idazten”. 58 urte, zehatz-mehatz. Hiltzaileak (Venezuela, 1961) liburua nabarmendu zuen Agirrek, Ugaldek idatzitako lehen euskarazko liburua, gerora, euskal ipuingintza modernoaren aintzindaritzat jo dena: “Atea irekitzen du. Martin Ugalde beti urrats bat gehiago. Beti hobetu, beti eman”. Hari horri tiraka, idazleaz idatziko testuei begira ere ipini zen Agirre, “erreferentziak idazle, kazetari eta pentsalaria” izan dela adierazteko.

Idazle bati egin dakiokeen omenaldi ederrena bere obra guztien eskura jartzea delakoan dago Jakineko zuzendaria: “Eskertzekoa da bizia herri baten zerbitzura, hizkuntza baten esanetara jartzeko adorea eduki izana”.



Anjel Lertxundi idazlea eta Alex Huitzi zinegotzia eta saioaren aurkezlea. AIURRI

"Leialtasun baten historia" liburuaren aurkezpen ekitaldia

Hitzaldi interesgarria eskaini zuen Lertxundik, Bastero Kulturgunean. Ikusgai dago, osorik, Aiurri.eus gunean

Xabier Lasa ANDOAIN

Lertxundik *"Martin Ugalde. Leialtasun baten historia. Herrimintzen prosak"* liburuxkaren edizio gaurkotua aurkeztu zuen, joan zen astelehenean. Andoaingo idazlearen biografia miresmenetik idatzi zuela aitortu zuen: “Ezagutu nuenean, Venezuelen 50-60ko hamarkadatan idatzita zeuzkan *Las manos grandes de la niebla* eta *Un real sueño sobre un andamio* ipuin liburuak eskura jarri zizkidan. Ordutik bere ipuingintzak liluratu egin ninduen, erakusten zuen mailagatik. Geroago, 1970ean, *Hunik arrats*

artean nire lehen ipuin liburua argitaratu nuelarik, askok esaten zuten hura zela euskal ipuingintza modernoaren aitzindaria, eta nik ezetz erantzuten nien, aitzindaria, Martin Ugaldek 1965ean kaleratu zuen *Hiltzaileak* zela”. Ugaldek euskarazko egunkariaren alde apustua egin izanaren gainean gogoeta egin nahi izan zuen Lertxundik: “Kristau humanista zela aitortzen zuen beti, eta alderdiari leial izanagatik, haren gainetik kontzientzia jarri zuen. Leialtasunik handiena Euskal Herriari eta euskal kulturari gorde zion azken era arte”.



AIURRI

"Itzulera baten historia"

Martin Ugaldereen eleberraren irakurketa irekia egin zuten Martin Ugalde Kultur parkean, azaroaren 11n. Hitzorduak bat egiten zuen idazlearen jaiotzaren mendeurrenarekin. Ia sei orduko jardunean Andoaingo eragile ezberdinek parte hartu zuten. Tartean Ane Jalon Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria.



Goikoetxea Federazioko presidentea da, eta hainbat ardura ditu bere gain. Tartean, proba ezagun batzuren antolaketa: Maratoi erdia eta osoa, eta Lasarte-Oriako krosa. **AIURRI**

“Gizarteak emandakoa bueltatzeko asmoz hartu dut ardura berria”

RAMON GOIKOETXEA GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAKUNTZAKO PRESIDENTEA

Zenbaki potoloak kudeatzen eman du ia bizitza osoa, Kutxabank bankuan (Urnieta, 61 urte). Iaz hartu zuen erretiroa, baina oso bizimodu aktiboa darama

Andoni Urbistondo URNIETA

Zenbakiak kudeatzen jarraitzen du egun, bere pasioetako batekin uztartuz: atletismoa. Bilobak zaintzea da bestea, eta lasai bizi da, aspertzeko tarterik gabe. Astean bostetan egiten du kirola, eta sasoiatsu dago.

Nor zaitugu, Ramon Goikoetxea?

62 urteko urnietarra, egun Kutxabank izena duen bankuan lanean hasi zena, 16 urterekin. Iaz, pandemia hasi baino 15 egun lehenago jubilatu nintzen, 60 urterekin. Bi seme eta bost biloba ditut, eta jubilatuak dara-

maten bizitza arrunta daukat. Egundik Hernaniko Karabel auzoan bizi naiz emaztearekin, ia bizitza guztia Urnietan egin ondoren, azken urteetan Langarda auzoan. Etxe hura handiegia zen bi pertsonentzat, lan asko ematen zuen, eta aldatzea erabaki genuen.

Jubilatu zenbaitek bizitza berrira egokitzeak komerikak izaten dituzte. Zuk?

Ez, batere ez. Zeregina badut, eguna betetzeko, eta gustura nago. Pianoa atsegin dut, korrika saio batzuk egin, bilobekin egon, eta azken urte pasatxoan Gipuzkoako Atletismo federazioko presidentea jardunean murgilduta nago.

Aitonagintzan ondo?

Bai, ez baikara gehiegi egoten. Bost ditut. Ez daukat egunero loturarik eurekiko, salbuespenak salbuespen. Asier semearen alaba auzo berean bizi da, eta gehiago ikusten dut. Polita da aitona izatea, bere garaian aita izatea izan zen bezala.

Bankuetako lanak erabat bazter-tuta?

Bai, erabat. Lan polita neukan, azken urteetan enpresen salerosketan Kutxabank-en, baina jubilatuz geroztik erabat utzi dut alor hori.

Korrika saioak egiten segitzen duzula esan duzu. Zenbat?

Ba ahal badut lau zapabost saio egiten saiatzen naiz asteko. Hiru saio korrika, eta bi gimnasioan. Normalean federazioko bulegotik pasa, gestio batzuk egin eta orduan probesten dut korrika egiteko Anoetako pistetan. Iaz 27.9 egin nuen 200 metroetan. Beti izan naiz abiadurako korrikalaria, ez distantzia luzeetakoa.

Ez duzu, beraz, Behobia-Donostia lasterketa ezaguna korritu.

Ez, eta gainera atentzioa ematen dit jendeak ze ardura, lan hartzen duen, 20 kilometroko proba bat korritzeko. Ez al da errazagoa 100, 200 metroak korritzea? Prestakuntza askoz errazagoa da!

Nola sortu zen atletismo federazioko presidentea izateko aukera?

Badakizu, elkartu ginen batean, ‘Ramon, hau eta beste, ez da lan handia, noizean behin domina batzuk banatu eta listo!’. Amua irentsi nuen, eta hor nabil, moldatu nahian. Uste edo espero nuena baino gogorragoa egiten ari zait, eta pandemia garaia benetan gogorra izan da. Zergatik eman nuen baiezkoea? Ba beti pentsatu izan dudalako gizarteak emandako gizarteari bueltatzea. Nire jardunak Al- dundiaren esku egon behar luke, soldatapeko kideren batek egi- na, baina borondatezko jarduna bilakatu da, eta hor sartu naiz ni. Demagun betidanik izan dudala gizarteak eman didana bueltatzeko asmoa, eta hau da bide bat hori egiteko. Uste bai- no ikusgaitasun handiagoa dauka karguak, eta espero bai- no komunikabide gehiagori eman behar izan diet elkarri- ketaren bat.

Ze martxa daramazu?

Beno, astean bizpahiru aldiz joaten naiz bulegora, ordu pare bat pasa han; bateko saltsa, besteko deia... Beti dago zere- gina.

Zein da zure lana?

Hainbat proben jabetza dugu: 15 kilometroko proba, maratoi erdia eta osoa, eta Lasarteko krosa (ofizialki Donostiako Na- zioarteko krosa). Hiru proba horien eskubideak salduta, utzita genituen, diru kopuru baten truke, pandemia aurretik. Pandemiaren ondorioz, kudea- keta bereganatu zuen enpresa kiebran geratu zen. Esleipen berri bat egin dugu, beste en- presa batekin, eta kanpoko enpresa horrek antolatu du 15 kilometroko proba, eta hileko azken igandeko maratoi erdia eta maratoi osoa antolatuko du. Lasarteko krosa geuk antolatzea erabaki dugu, ez dugu esleitu nahi izan. Maratoiak eta 15 kilometroko probek dirua, eta- kina ematen dute, baina Lasar- tekoak ez, defizitariora baita, inbertsio handiagoa edo apala- goa eginda ere. Lasarteko kro- sarekin ez da sosik irabazten, eta, azkenean, 15 kilometrokoa

eta maratonia esleitu ditugu. Lasarte geuk antolatu nahi izan dugu, berpizteko asmoz.

Azaro hasieran egin zen 65. ekitaldia, eta benetan poztekoa izan zen ikusi zen atletismo giroa, grina.

Ahalegin handia egin dugu, uz-taila bukaeran hasita. Erotu antzean hasi ginen: dirua lortu, babesleak, laguntzak erakundee-tara, Udalek abuztuan urteko diru gehiena gastatua dutenean. Eskertzekoa izan da Lasarteko Udalak eman digun laguntza, Donostiakoak eta Foru Aldundiak bezala. Enpresen laguntza ere bai, izan dirutan, izan jana edo edarian. Ni aritu naiz laguntzak lortzeko ahaleginean, hara eta hona. 1.500 sarrera saldu genituen, eta 500 saltzeko aurreikuspena egin, pentsa... Koltxoi txiki bat lortu dugu, hurrengo urteko ekitaldirako. Ume eta gazte pilo bat etorri ziren korritzera, 700 pasa, oker ez banago, Miranda de Ebrotik (Burgos, Espainia), edo Ipar Euskal Herritik, eta hurrengo urtean gehiago ekarri nahi ditugu, horrek kolorea ematen baitio Nazioarteko krosari. **Egun polita izango zen zuretzat.**

Polita, baina gogorra, tentsio handikoa. Goizeko 08:00etarako zalditokian nintzen, eta txarteldegitik buelta dezente egin nituen, sarrera salmenten berri zehatz edukitzeko. 1.500 sarre-retatik erdia korrika egitera etorri ziren umeen gurasoak izan baziren, berez krosa ikus-teko 500, 600 lagun bertaratu ziren. Gehiago ekartzeko aha-legendak merezi duela uste dut. Kipchoge eta munduko beste korrikalari onenak ekarrita lortuko genuke hori? Ez dakit. Behintzat izena ematen diozu probari, balioa, eta hori ona da. **Noiz arte zaude presidente karguan?** Beste hiru urte.



Ramon Goikoetxea urnietarra da, eta azken sasoian Hernanin bizi da. AIURRI

Esan dezakegu Lasarteko krosa berpiztea dela zure zeregin nagusia?

Bai, hori eta beste pare bat kontu. Krosaz gain, finantza arloan federazioko altxortegia-ri lasaitasuna eman nahi nioke. Aldundiak laguntza handia ematen digu larri antzean ibili garenean, batez ere Goizane Alvarez Aldundiko kirol arloko arduradunak. Erakundeek konfiantzazko jendea behar dute, agindutakoa beteko duten so-laskideak, eta ni, gu, federazioa, agindutakoa betetzen ari gara [Kirol arduradunarekin izan-dako solasaldi zintzoa kontatzen du, natural, kazetariari horren berri ez emateko eskatuz]. Bes-te zeregin garrantzitsu bat Rea-leko atletismo sailak sortutako

aplikazio bat Gipuzkoako klub guztiek erabiltzea da, musu truk. Realeko eskolak 450 mu-tiko ditu, eta horiek kudeatze-ko aplikazio hori erabiltzen dute. Epaille taldea, entrenatzai-leak eta klubak indartzea ere, federakuntzaren helburu ga-rrantzitsuenetakoa da, noski.

Politikariekin tratatu ona duzu.

Politikariekin ondo eraman beharra daukat. Euren laguntzen baitakoa da gure iraupena. Bi langile ditugu, eta horiei guk ordaintzen diegu soldata, guk lortzen dugun diruarekin, eta hori Aldundiak ordaindu behar-ko luke, guk lortzen dugun di-rua inbertsioetara bideratzeko: krosetako parte hartzea, tekni-fikazioa, pertikak erosi, bidaiak ordaindu...

Zenbat atletismo klub daude Gi-puzkoan?

Hogeita zortzi.

Eta zenbat kirolari federatu?

1.300, gehienez, orain 1.100 edo. Heren bat 35 urtetik gorakoak, master kategoriakoak. Nik ai-tonen kategoria esaten diet, txantxetan. 130 euro balio du federatu txartelak, eta guk, hor-tik, apenas bost euro jasotzen dugu txartel bakoitzagatik. Huskeria. Mendiko federazioak dauka federatu gehien Euskadin, eta hor mendi korrikalariak ere sartzen dira. Gure ustez horiek gure federatuak izan beharko lukete, baina... Trail-a olinpiar kirola izango da, aka-so, bost urte barru, eta hor parte hartzeko atletismo fede-razioan federatu beharko du kirolariak. Espainiako CSD Kirol Batzorde Gorenak ere ebatzi du, mendi korrikalariak atletismo federazioarekin fede-ratu behar dutela.

Politika, ekonomia, gizarte gaiei eta beste erreparatzen al diezu?

Bai. Politikari asko.

Aritu zinen, aspaldi, Urnietan, UDA alderdian.

Hura ez zen politika izan, he-rrigintza baizik. Herriari la-guntzeko egin nuen, baina ez politikari nintzelako.

Nola ikusten duzu jendartea, abe-rria?

Oso gaizki. Inboluzioa etorriko dela uste dut, eskuin joerako alderdien bitartez. Indar handia hartzen ari dira Casado, Ayuso eta beste, eta horiek erreferen-te izateak beldurtzen nau. Zo-rionez Euskal Herrian halako jarraipenik ez dutela dirudi, baina han gertatzen denak era-gina izango du hemen. Han, Espainian egoera iraultzen bada, hangoa hona iristeko arriskua dago. Ezertarako konpromisorik

ez dago jendartean. Nik bizi maila ona daukat, baina besteek eduki dezaketenak arduratzen nau. Jendeari ez. Indibidualis-moa handia da, osasuna eta hezkuntza pribatizatzen ari dira han eta hemen, eta jende xumea hori erabakitzen duten alderdi politikoak babesten... Ulertzen zaila.

Pentsioak ere desagertu egingo omen dira.

Duela 25 urte ere antzera esaten zen... Duela 50 urte politikari ezagun batek esan zuen zentral nuklearrak behar genituela, Euskadi eskualde idorra bila-katuko zelako mende laurdenean. Ikusten duzu, ez zuela asmatu...

Bankuek nahiko fama txarra dute jendartean, eta zuk banku batean egin duzu lan 45 urtetan. Zer dio-zu?

Beno, nik esan dezakedana da egun bankuek lortzen duten etekin ia guztia salerosketa alorretik datorrela, finantza arloko negozioekin, ematen dituen maileguetatik ez baitu etekinik lortzen apenas. Maile-guen interesa %0an dago, eta hortik dator hainbeste komisio jarri izana. Bulego batean sar-tzeagatik kobratu egiten dela esan genezake ia-ia, ez baitute irabazirik lortzeko beste mo-durik. Ulertzen dut komisioen kontuak jende askoren amorrua eragitea, baina egun, komisi-rik gabe banku askok itxi egin beharko lukete.

"USTE BAINO IKUSGAITASUN HANDIAGOA DAUKA PRESIDENTE KARGUAK"



- **Ehunka lagun jokoan, denboraldi berrian.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Astero sari gozoa Arrutiren eskutik.**



NIRE USTEZ

KARMELE OTAEGI NEGREDO ANDOAIN

Orain Gipuzkoa



REAL SOCIEDAD

Joan den larunbatean, Euskaldunako nesken lehenengo taldeak Realeko taldearekin neurtu zituen indarrak. Etxekoek eutsi egin zioten lehenengo ordu erdian, ondo eutsi gainera, baina hiriburuko gailentasun teknikoak eta dituzten bitartekoak, dena esan beharra baitago, lehia Real Sociadadekoen alde jarri zuten eta, azkenik, garaipena eraman zuten.

Baina ez da partidaren kronika ezta bitartekoaren desberdintasuna idatzi honen zergatia, janzkeran ikus zitekeen zerbait baizik. Etxeko taldeko jokalariek ia ehun urte duen Euskaldunako klubaren armarrria eta Campezo enpresaren logoa harro zeramaten bitartean, pentsatzen dut Realekoek bere armarrria eta agian zerbait gehiago zeramatela paparrean – aitortu beharra baitaukat ez niola erreparatu– eta, hori bai, ipurdi aldean “Orain Gipuzkoa” leloa zeramaten, harro ere pentsatzen dut. Eta orduan galdera bat egin nion neure buruari, eta orain plazaratzen dut: Gipuzkoako Foru Aldundiak Realeko neska taldeari Gipuzkoako gainontzeko beste taldeei baino gehiago laguntzen al dio? Gehien daukanari gehiago ematea izango litzateke. Dena den hala bada eta ez bada ere, hiriburuko taldea probintzian zehar horrelako esloganekin ibiltzea oso itsusi geratzen dela iruditzen zait.

Eskubaloiko taldeak maila bikainean ari dira lehiatzen

ESKUBALOIA Andoaingo eta Urnietako jubenil eta senior mailako taldeak sasoiko ari dira, denboraldian zehar

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako Quel Abogados senior mailako neskek bosgarren garaipena eskuratu dute jarraian. Asko sufritutako partida izan zen; oso orekatua (25-23). Urnietako Artola Harategia senior mailako mutilek ere ezinbesteko bi puntu eskuratu zituzten Urdabairen aurka (33-26). Euskadiko txapelketan iaz baino hobeto moldatzen ari dira.

Partida politak Allurralden

Arratsalde pasa polita dago larunbat honetan, Allurralde kiroldegian. Jubenil eta senior mailako hiru taldeak etxean ariko dira. Jubenil mutilek atsedeen izango dute, aurrekoan Urnietako garaitu eta gero (33-29).

- Senior Sen M–Bergara Larunbata, 20. 16:30.
- Leizaran JubN– Urnietako Larunbata, 20. 18:00.
- Leizaran SenN– Orio Larunbata, 20. 19:30.



ANDOAINGO

Igeriketa txapelketa Allurralden

IGERIKETA Larunbat honetan Buruntzaldea IKtako kideek Allurralden bertan Neguko Ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute. Lehiaketa arratsaldeko 15:30ean hasiko da eta infantil, junior eta senior mailakoek parte hartuko dute. Ondorioz, igerilekua itxita egongo da gainerako erabiltzaileentzat

Futbol kanpusa Ubitarten

FUTBOLA Kanpuseko lehen txanda abenduaren 27tik 30era bitartekoa izango da; eta bigarrena urtarrilaren 3tik 5era. Prezioari dagokionez, lehen txandaren prezioa 65 eurokoa izanen da eta bigarrena 50 eurokoa. Euskaldunak antolatu duena 2009tik 2013ra biarteko neska-mutilei zuzendutakoa da. Ordutegia: 09:00-13:30era.



1. PARTIDUA	2. PARTIDUA
ZALDUA II - ZALDUA I	GOIKOETXEA V -
LOITEGI - MURGIONDO	BARRENETXEA IV
	ANSA II - ZUBIRI
BERTSOLARIAK	MUSIKARIAK
ANDONI REKONDO	AMAIA IRAZUSTABARRENA -
EKAIN TOLARETXIPI	MIRARI JAUREGI - JOSEBA IZAGIRRE
	EIDER TOLOSA - ELAIA DIAZ BEROZ
AZAROAK 25, OSTEGUNA - 17:00 - 20:00 - GALARRETA	
SARRERAK 10€	
SALMENTA-GUNEAK: HERNANI KRONIKA, TRIPONTZI, GARIN, EKOS, BODEGA, GALARRETA (EGUNEAN BERTAN), EREÑOTZU, IRRINTZI, ASTIGARRAGA, IKATZA, GOIZUETA, AMAIA KAFETEGIA, URNIETA, XAUXAR.	



JAVI MENTA / INSTAGRAM

Behobia-Donostia lasterketaren sailkapenak

ANDOAIN

24	Javi Menta Martinez	01:07:55
80	Asier Rajado Barberena	01:11:06
184	Eduar Doportillo Rasero	01:13:38
238	Axier Etxeberria Albisu	01:14:28
548	Jon Lanz Bordagarai	01:18:25
687	Martin Askarai Otamendi	01:19:27
929	Asier Dominguez Ramos	01:21:08
1.631	Josu Arregi Formentin	01:25:08
1.816	David Elvira Gainzarain	01:26:00
2.155	Andoni Etxezarreta Sagastibeltza	01:27:26
2.910	Alfredo Rodriguez Imaz	01:29:34
3.036	Jesus Mari Patino Candelario	01:29:52
3.348	Maikel Gomez Souto	01:30:51
4.472	Alex Hernandez Merchan	01:33:59
4.535	Andoni Lanz Bordagarai	01:34:06
4.537	Iñaki Etxeberria Barriola	01:34:07
4.551	Ion Jauregui Artola	01:34:09
4.874	Unai Martinez Beloki	01:34:53
5.209	Alejandro Hernandez Portero	01:35:39
5.576	Peio Alkorta Erauntzetaurgil	01:36:33
5.589	Mikel Collantes Ibañez	01:36:35
5.788	Patxi Nieto Gaztelu	01:37:01
5.956	Aitor Cuartango Berrendo	01:37:26
7.373	Javier Urbelz Garcia	01:40:12
7.376	Unai Laskibar Hernandez	01:40:12
7.634	Ander Ubillos Hernandez	01:40:45
7.926	Fco.Javier Mancera Roncero	01:41:22
8.330	Iker Etxeberria Lasarte	01:42:08
8.379	M. Iosune Etxezarreta Sagastibelza	01:42:15
8.557	Jokin Eguzkitza Zalakain	01:42:35
9.790	Mikel Conde Correa	01:44:56
10.417	Igoro Lazaguirre Ugarte	01:46:17
11.096	Itziar Alzuguren Almorza	01:47:45
11.235	Juan Carlos Solana Vecino	01:48:02
11.309	Alberto Martin Del Rio	01:48:12
11.400	Joseba Erkizia Itoitz	01:48:23
11.849	Aitor Iurramendi Alkorta	01:49:16
11.886	Silvia Urbaneja Muñoz	01:49:19
11.925	Olatz Lopez De Sabando Troncoso	01:49:24
11.931	Idoia Alduncin Gutierrez	01:49:24
12.222	Alberto Elizburu Narcue	01:49:56
13.170	Igor Lopez De Arregui Alicostes	01:52:02
13.196	Maialen Diez Rezola	01:52:05
13.531	Hipolito Barreña San Juan	01:52:51
13.738	Gustavo Marques Martinez	01:53:18
13.951	Adrian Gomez Garcia	01:53:48
14.007	Antxon Ubiria Bergara	01:53:57
14.530	Iraitz Compains Mugiaca	01:55:09
15.298	Maialen Santa Cruz Arizmendi	01:57:02
15.305	Alexde Lucas Sanchez	01:57:03
15.602	Hugo Camacho Flores	01:57:52

15.877	Maren Petricorena Uranga	01:58:38
15.980	Francisco Iglesias Gonzalez	01:58:54
16.427	Virginia Ciganda Muriel	02:00:27
16.636	Unai Moreno Modenes	02:01:05
16.787	Joxe Mari Gonzalez Santacruz	02:01:46
17.726	Mikel Eguren Calonge	02:06:31
19.346	Antxon Recondo Juangorena	02:26:24

Patinatzaileak

87	Nerea Hernandez Perez	01:05:19
103	Pablo Cruz Rico	01:09:43

URNIETA

130	Igor Amantegui Altuna	01:12:42
168	Norman Cuenca Gallego	01:13:23
472	Adrian Garcia Melero	01:17:38
534	Jon Iruretagoiena Rama	01:18:15
646	Eneko Ramirez Gonzalez	01:19:09
1.419	Mikel Garmendia Irazusta	01:24:00
2.161	Ander Zubizarreta Ansa	01:27:26
2.742	Iñigo Andres Martin	01:29:06
2.908	Imanol Garcia Arocena	01:29:34
2.968	David Sierra Salamanca	01:29:42
3.539	David Cuenca Gallego	01:31:28
4.312	John Sanchez Sanchez	01:33:37
4.957	Periko Juanikorena Erro	01:35:06
5.166	Pedro Arroyo Tamayo	01:35:36
5.543	Iosu Lopez Niño	01:36:27
5.894	Joxe Mariubillos Muñoa	01:37:16
6.060	Jose Luis Romero Martin	01:37:39
6.355	Vicente Benitez Mendoza	01:38:15
6.502	Imanol Arrieta Ansa	01:38:32
6.614	Margot Madina Gonzalez	01:38:45
6.679	Bego Villas Miguel	01:38:54
7.719	Jonathan Lopez Infante	01:40:55
8.020	Maria Salaberria Telleria	01:41:33
8.491	Oier Egaña Arrieta	01:42:29
8.538	Benjamin Rodenas Gallardo	01:42:33
8.610	Uxue Salaberria Telleria	01:42:41
8.700	Iosu Gomez Manterola	01:42:52
9.375	Jon Mikel Lomeña Marcos	01:44:09
9.557	Dennis Torrecilla Aseguinolaza	01:44:30
9.573	Lorea Barkaiztegi Begiristain	01:44:31
9.690	Saioa Martinez Fonseca	01:44:45
11.812	Patxi Cuenca Navas	01:49:11
13.923	Manu Santos Mayor	01:53:44
15.697	Idoia Esnaola Agesta	01:58:10
15.701	Ainara De Miguel Berasategui	01:58:10
16.242	Enrique Campos Jimenez	01:59:47
16.569	Cindy Mayorly Polo Gomez	02:00:55
16.972	Juan Bautista Cantero Lopez	02:02:37
17.186	Oihana Rebollar Nuñez	02:03:39
17.576	Maite Beguiristain Iceta	02:05:33



ANDOAINGO

Gipuzkoako txapelduna

TXIRRINDULARITZA Ezusteko pozgarria eman zuen Andoaingo Txirrindulari Eskolako Izaro Etxarrik, aurreko asteburuan. Beasainen jokatu den Gipuzkoako ziklokros proban garaile irten zen. Poza Andoainera eta Adunara iritsi da, txirrinduzale amorratuak baitira etxarritarrak.



AIURRI

Elkartasunezko txapelketa

DUATLOIA Lagunarteko jardunaldi solidarioa egin zuten asteburuan Goiburu Golfeko zelaietan, Andoainen sortu den La Palma irlaren aldeko mugimenduaren eskutik. Taldeka jokatu zen eta irabazleak Xanti Anza, Joseba Iturbe, Nerea Iparragirre eta Jon Lopez izan ziren.



andoainDARRA
euskaraz

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 18

ANDOAIN Hitzaldia

"Biolentzia bikarioa" ikuspuntu juridiko batetik. Hizlaria: Cristina Ramos (Clara Campoamor elkarteak).
18:30, *Bastero*.

ANDOAIN Merkataritza

Andoain Txartelaren erabiltzaileek 5 euroko saria jaso ahal izango dute, erosketa egiteko garaian.
Epea: Abenduak 15.

OSTIRALA 19

URNIETA Liburutegiko xaguak

Irakurketa haurrentzat.
17:00, *Lekaio*.

URNIETA Antzerkia

Udal antzerki tailerrean parte hartzeko deialdia zabalik. 18 urtetik gorakoei zabalduko ekimena da, Saroben burutuko dena.
Izena emateko azken eguna.

ANDOAIN Erakusketa

Martin Ugaldere mendurera.
Azaroak 5-abenduak 4, Bastero.

ANDOAIN Sari banaketa

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, sari banaketa ekitaldia.
19:00, *Bastero*.

LARUNBATA 20

ANDOAIN Irteera

Mendi marxa Belabietara aldera, Andoaingo Gaztearearen eskutik.
08:30, *Bekoplaza*.

ANDOAIN Kontzertua

"Sorotan Bele gogoan", Udal Musika Banda Eskolako kideekin batera.
19:00, *Bastero Kulturunea*.

IGANDEA 21

ANDOAIN Kontzertua

Nova Orquestra Cambra Emporda. Hamabi musikariek osatutako harizko orkestra Vivaldi, Bach, Beethoven eta Strauss lanak interpretatzen dituenak.
12:00, *Bastero Kulturunea*.



Aurreko edizioetan udaletxearen aurrealdea egun berezira egokituta. AIURRI

ANDOAIN Omenaldia

Indarkeria matxistaren emakume biktimei eta bizirik atera direnei omenaldia. Andoaingo Udalak antolatutako duen zikloaren ekitaldi nagusia.
Azaroak 25, osteguna. 19:00, Goikoplaza.

ASTELEHENA 22

ANDOAIN Kontzertua

Katrin Iturraldearen zuzendaritzapean abesbatza txikia, abesbatza gaztea eta helduen abesbatza. Santa Zezilia eguneko ospakizuna.
19:00, *Bastero Kulturunea*.

OSTEGUNA 25

ANDOAIN Ikus-entzunezkoa

"En el mundo de los chicos no se pega a las mujeres" izeneko ikus-entzunezkoa gazteentzat.
17:00, *Ludoteka*.

ANDOAIN Omenaldia

Indarkeria matxistaren emakume biktimei eta bizirik atera direnei omenaldia.
19:00, *Goikoplaza*.

URNIETA Ikus-entzunezkoa

"Volar", Bertha Gaztelumendiren lan ezaguna.
19:30, *Sarobe*.

OSTIRALA 26

URNIETA Ipuin konkateka

Maite Franko kontalariaren eskutik.
17:00, *Lekaio*.

ANDOAIN Tailerra

Ligoteo sanoari buruzko tailerra gazteentzat.
17:30, *Gazte Lokala*.

ANDOAIN Tailerra

Xanti Agirrezabala aktore azpeitiarrak gorpuztuko duen antzezlan da
18:00, *Bastero*.

URNIETA Antzerkia

"Pronoia", Virginia Imazen eskutik.
19:00, *Sarobe*.

LARUNBATA 27

ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa feminista.
10:00-14:00, 15:00-19:00
Allurralde kiroldegia.

ANDOAIN Azoka solidarioa

La Palma irlaren alde.
Zumea plaza eta Goikoplaza.

IGANDEA 28

ANDOAIN Azoka solidarioa

La Palma irlaren alde.
Zumea plaza eta Goikoplaza.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Petite Maman**

Igandea, 21. 19:30.

El lobo y el león

Igandea, 21. 17:00.

Petite Maman

Igandea, 21. 19:30.

El último duelo

Larunbata, 27. 19:30, 22:00.

Igandea, 28. 19:30.

Astelena, 29. 19:30, 22:00.

La familia monster

Larunbata, 27. 17:00.

Igandea, 28. 17:30.



SINOPSIS

**Petite Maman**

Zuzendaria, gidioia: Céline Sciamma. **Aktoreak:** Joséphine Sanz, Gabrielle Sanz, Nina Meurisse, Stephane Varupenne, Margot Abascal. **Herrialdea:** Frantzia (2021). **Generoa:** Drama, haurrak. **Iraupena:** 72 minutu.

Adiskidetasunari gorazarre

Nelly 8 urte ditu eta amona galdu berri du. Gurasoei ama hazi zeneko etxea husten laguntzen dien bitartean,

inguruko basoa arakutzen du. Han bere adineko beste neskato bat ezagutuko du, adiskidetasun ederrari bidea emanez.

SINOPSIS

**El lobo y el león (Le loup et le lion)**

Zuzendaria: Gilles de Maistre. **Gidoia:** Prune de Maistre. **Aktoreak:** Molly Kunz, Graham Greene, Mylene Robic, Charlie Carrick, Rhys Slack. **Herrialdea:** Frantzia (2021). **Generoa:** Abenturak. **Iraupena:** 99 m.

Animaliak protagonista diren filma

Alma 20 urteko piano-jotzailea da. Bere haurtzaroko etxean bere bizitza irauli egiten da

otso-txakurkume bat eta lehoikume bat erreskatatzen dituenan.

Euskararen eguneko lehiaketa berria, martxan

"Euskaraz izango gara" lelopean kaleratu du aurten Danobatgroup-ek euskararen eguneko lehiaketa

Erredakzioa ANDOAIN

Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Goiti, Soralue, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Danobatgroup-ek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lan-tegietako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak. "Euskaraz izango gara" da Danobatgroup-ek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta agertoki hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan...

Baina, egunerokotasunetik haratago, gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi dio Danobatgroup-ek.

Aurten, aurreko urteetako bide jarraituz, Danobatgroup-ek lantegiak dituen herrietako he-



Latz Danobatgroup-eko kidea da. AIURRI

rritar guztiengana iritsi nahiko luke euskararekiko duen konpromisoa ezagutzera emateko Euskararen Eguneke lehiaketaren bidez. Lehiaketan parte hartzeko, ondorengo helbidean sartu behar da: info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html

Erantzunak Danobatgroup-eko webgunean aurkitu ahalko dira. Horretaz gain, industria arloan euskararen erabileran laguntzen duen hitz tekniko osatutako hiztegia eskura dago: <https://www.danobatgroup.com/eu/euskara>. Hiztegia sartzeko hitz berriren bat proposatzeko aukera ere ematen du.

Azaroaren 30era arteko epea egongo da lehiaketan parte hartzeko, eta abenduaren 3an erantzun zuzena eman dutenen artean sari hau zozkatuko da: gaua eta gosari ederra bi pertsonarentzat Bizkaiko zuzaitz-etxe batean.

Euskaraz izango gara.



Aurkezpen ekitaldia egin zuten aurreko ostiralean. AIURRI

Bi eguneko epean agortu dira erosketa-bonoak

Herritarrek 25 euro ordaindu ditu, eta erosketa egiteko garaian bonoaren balioa 50 eurokoa izango da

Erredakzioa ANDOAIN

48 orduko epean agortu dira 1.600 erosketa-bono, ekimenak herrikideen artean duen arrakastaren seinale. Udalaren eskaintza herritar askok baliatzeko aukera izango dute, Agustin Leitza kalean ilarak egin ostean lortu dutena. Herrira begirako ekimenak herrian bertan eragina izango duela nabarmendu zuen Izagirre zinegotziak: "Kantainak 80.000 euroko injekzio zuzena ekarriko du tokiko merkataritzara, eta aurreko kantainetako 120.000 euroko gastu zuzenari gehituko zaio". Agerraldi berean Maider Lainez alkateak eta Salkin elkarteak ekimenaren parte hartzeko deia luzatu zuten. Bistakoa da herrikide ugari ekimenaren zain zegoela, azkar batean amaitu baitira bonoak. Kanpaina berriak Gabonetako erosketen pizgarri izan nahi du.




Azkar batean banatu dituzte bonoak.



Neurriak betetzeko deia zehatza zen.

ZORION AGURRAK



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:** 943 300 732.

ANDOAIN

Zorionak Ekiñe
Aupa Ekiñe!
Azaroaren 17an 12 urte! Zein azkar pasatzen den denbora, txapeldun! Muxu handi bat, etxekoak.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza **edo mintza-lagun** bila dabil: Gaztelan eta ingelesez

/ danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

PARTE HARTZEKO

Emaillez: diseinua@aiurri.eus
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrira: **Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN**

TELEFONO-ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN EUSKARAREN EGUNeko LEHIAKETAN!

euskaraz izango Gara

Sartu lehiaketako estekan, erantzun galdera eta irabazi gau berezi bat 2 lagunentzat Bizkaiko zuzaitz-etxe batean.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html

Parte hartzeko azken eguna: 2021eko AZAROAK 30 | 00:00

DANOBATGROUP / DANOBAT / GOIMEK / GOITI / IDEKO / LATZ / SORALUCE

Egunean Behin lehiaketa

"Uria" erabiltzailea izan da aurreko asteko zozketan irabazlea. Aste honetako lehiaketa martxan dago, zortzigarrena. Aurreko asteko irabazleak "Ezkide", "Aimar", "Haizea", "Jon Ander", "Oterber" eta "Itsaso" izan ziren. Denek ere Arruti gozotegiko saria eskuratu dute. Zorte on aiurrizaleei.



AIURRI



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

'Beti' pakete

“Behobia-Donostia lasterketa egin duen gipuzkoar gehiago egongo da, egin ez dutenak baino. Behin behintzat bai!”. Esaldi hori entzun nuen pasa den astean nonbait. Ez da urrutiti ibiliko. Iritzi hau irakurriko duzuenen artean pentsatu, baieztapen horrek funtsik baduen edo ez. Nik egin nituen hainbat, bere garaian. Hamaika uste dut. 11, zenbakiz, zuzenago. Gazte garaitan urteroko hitzordua zen. Koadrilan izan, Gasteizko lagunak, senideekin pikeak... Ohikoa zen lasterketa herrikoi hura egitea. Bizpahiru hileko prestakuntzarekin nahikoa baitzen, duintasunez aritzeko.

Jendartea lehiakorra da izatez, eta beti marka hobe egin nahi izateak sufrikario batzuk ekartzen zituen. Beti 100 kiloko mugan ibiltzearen albo kalteak, pakete bat izatearen ezinak... Baina

Behobia bukatuta, a ze bazkari eta parrandak. Jatetxeren batera joan, bapo jan eta edan, eta iraun arte. Gero, hurrengo bostzazpi egunetan, izterreko mina...

Mende erdia betetzear, Behobia bueltatzea utopia zen niretzat, baina Euskadi Irratiko mikrofonoak bueltatzeko aukera eman dit ezustean. Motorrean joango nintzela agindu zidan nagusiak, eta beldurtu nintzen, ze ez naiz motorrean ibili zalea. Abiadura handian ibiltzen dira, eta ez zaizkit sobera gustatzen. Gero bizikletan, maldan behera 90 kilometroko abiadura joanez gero, gozatzen! Baina motorrean...

Joseba izan nuen gidari, Ramon koordinatzaile. Lasaitu ninduten: “Lasai, 20-25 kilometroko abiadura ez da ezer pasatzen”. Pasa zen, Josebaren kaskoa ehun aldiz kolpatu nuela mantsotzen zuen



Joseba gidariarekin batera lasterketaren jarraipena egin zuen Urbixek. AIURRI

aldi. Ohitura falta... Helmuga inguruan, goizean-goiz, iraganean nik bizitako argazkiak: jende oldea garraio publikoan, komuna, kafe bat, urduritasuna...

Entzungailuak jarri, kaskoa jantzi, eta martxa. Emakumeekin aurrea. Jendetza Colon

pasealekuan Irunen, ez hainbeste Gaintxurizketan. Ateri. Eskerrak. Mutilak iritsi dira burura Errenteriara iritsi aurretik, eta onenekin Eneko Agirrezabal segurarra. Konexio eta konexio artean ‘Aupa Eneko’ esan diot, hooligan onenaren pare! Eus-

kaldun batek Behobia irabaztea ez baitzuen inork aurreikusi. Sufritu zuen Capuchinos-en, Buenavistan... baina Zurriolan eta Bulebarrean egurra. Nik bezala motorrean, Pasaian Josebari helmugaraino ziztu bizian eramateko agindu ostean. 75-90 kilometro orduko abiadura Mirakruzen behera... Bertigoa. Agurtu naiz, eta esan diot, pakete hobeak izango zituela orain arte eraman dituenak.

Bertigoa mutilen proba bukaera kontatzen! Txapela Segurara. Harrapazak/n. Euskadi Irratiko mikrofonoan zintzo Eneko, eta beste. Iristen hasi dira korrikariak. Pakete gutxi, 01:20:00tik behera egin dutenen artean. Baina horiek adina meritu bi ordu edo gehiago behar izan dutenek. Pakete izan edo ez. Lasterketa herrikoiek herria dutelako ardatz!

ETORKIZUNA ERAIKIZ CONGRESS *Building the Future*

**Kursaal
Abenduak
13-14
2021**

Kongresu honen xede nagusia Etorkizuna Eraikiz ekimena nazioartean aurkeztea eta kontrastatzea da. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ulertzeko eta ezartzeko modua da. Gipuzkoa Foru Aldundiak sustatua eta finantzatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen parte-hartze aktiboarekin. Hauek dira Kongresua antolatu duten lau erakundeak.



Izen-ematea:
www.etorkizunaeraikizcongress.com

GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAINEuskal Herriko
UnibertsitateaDeusto
Universidad de DeustoMondragon
Unibertsitatea